


Ekialdeko arte adituak ekarri ditu oraingoan Euskadira ZABAL proiektuak

m. imaz



Irene Larraza, Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria; Rahul Gudipudi, Art Jameel erakundeko komisarioa; Bingen Zupiria, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburua; David Teh, Istanbulgo Biurtekoko komisarioa. /

Istanbulgo Biurtekoko eta Art Jameel erakundeko komisariak etorri dira bisitan, Etxepare Euskal Institutuak gonbidatuta

«Euskal sorkuntza garaikidearen nazioarteko proiektzioa bultzatzeko» eta artearen munduan esatekorik daukaten nazioarteko eragileekin harremanak estutzeko sortu zuen 2019an Etxepare Euskal Institutuak ZABAL programan, zeinaren baitan truke ugari gauzatu diren azken urteotan. Ruth Estévez, Bienal São Pauloko komisarioa, izan zen lehen gonbidatua 2019an. Ruangrupa kolektiboak jarraitu zion, Documenta Fifteeneko zuzendari artistikoak. Pandemiak eragindako geldialdiaren ondoren, programak Marina Otero Shanghaiko Biurtekoko komisarioaren bisitarekin jarraitu zuen, 2021ean.

Oraingoan, ekialdetik etorri dira gonbidatuak: Turkiatik eta Arabiar Emirerri Batuetik. Hain zuzen ere, Etxepare Institutuak ohar baten bidez jakinarazi duenez, «David Teh eta Rahul Gudipudi, Istanbulgo Biurtekoko eta Art Jameel erakundeko komisarioak, hurrenez hurren, Euskadi bisitatzeko ari dira egunotan, ZABAL programaren baitan, proiektu, eragile, eredu eta praktika artistikoak bertatik bertara ezagutzeko». Irene Larraza Etxepare Institutuko zuzendariarekin elkartu dira asteazken goiz honetan.

Teh Australiarra da jaiotzez eta Singapurren bizi da. Irailaren 17tik azaroaren 20ra egingo den Istanbulgo

Biurtekoko komisarioetako bat da, Ute Meta Bauer eta Amar Kanwarrekin batera. Bere interesa «arte esperimentalaren eta literaturaren arteko elkarguneetan ere kokatzen da» eta «erregionalismoaren –zentzu zabal eta inklusiboan- eta artearekin duen loturaren inguruan hausnarketa egiten duten artista eta curator-ak ezagutuko ditu». Istanbulgo Biurtekoa, alegia, «garrantzi handiko ekitaldi artistikoa da, kulturen arteko elkarrizketan sakontzen duena eta arte garaikideari sorkuntza-bide berriak irekitzen dizkiona». 1987az geroztik, Turkiako arte eszeniko eta ikusizkoentzako erakusleihorik handiena dela nabarmendu dute.

Art Jameel, berriz, Arabiar Emirerri Batuetan eta Saudi Arabian egoitza duen nazioarteko arte erakunde independentea da, eta «artistei eta komunitate sortzaileei» laguntzen die. Haien ahaleginak, azpimarratu dute, «funtsezkoak izan dira herrialde horretan irteera artistiko eta kultural berriek gora egin dezaten, eta nazioarteko lankidetzarako plataforma bat ere eskaini dute». Art Jameel-en izenean etorri den Rahul Gudipudi komisarioak «arte publikoko proiektuekin lan egiten duten eta beren praktikan natura eta komunitateak integratzen dituzten artistengan» du interesa, eta ildo horietakoak izango dira Euskadin egingo dituen kontaktuak.

- [Vuelos a Londres](#)
- [Empleos más demandados](#)
- [Incineradora](#)
- [Precio de la luz](#)